



## 2024KO DEIALDIA

### GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUNBIDE EGOKIAK AITORTZEKO -BeBai-

#### JUSTIFIKAZIOA

BeBai 2024 aintzatespenen laugarren deialdia aurkezten dugu. Deialdi horren helburu nagusia da publikoki baloratzea erakunde publikoek, pribatuek eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak gure lurralde historikoan hauskortasunean bizi diren pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko egiten dituzten ahaleginak.

Sariak – BeBai – 2024 banatuko dira, beste urte batez, **2024ko ekainaren 21ean (OHARRA: data aldatu da, ez da maiatzaren 16an izango)** Gasteizko Europa Biltzar Jauregian egingo den urteroko topaketan. Hala ere, gonbidapena bidaliko dizugu, ekitaldi horretan izena eman ahal izateko behar besteko aurrerapenaz.

BeBai sariak emateko topaketak, aurreko edizioetan bezala, ospakizuna eta gogoeta uztartzea izango du helburu, ondo egindako lanaren poza eta laguntza eskaintzen diegun pertsonen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten esku-hartzeen inguruan ditugun kezkak partekatzeke proposamen batetik abiatuta.

Deialdi honetako edukietako batzuk aldatu egin dira aurreko edizioekin alderatuta. 1) Jardunbide egokiaren definizioa eta 2) Eskaintzen den kalitate-mailaren eragina. Deialdi honen alderdiak harremanetan oinarritutako arreta-paradigmaren printzipioetara egokitu nahi dira. Paradigma hori Arabako Foru Aldundiak bere egiten du Gizarea foru-ereduaren bidez.

Hain zuzen ere, Gizarte Politiketako Sailak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean eta zeharka kudeatzen dituen zentro, zerbitzu eta programetako harremanetan oinarritutako arreta-paradigma pixkanaka ezartzeko egiten duen proposamen praktikoa da Gizarea, eta bere printzipioak titulartasun pribatuko gizarte-baliabide eta -zerbitzuetan txertatzeko bokazioa du.

#### 1.- JARDUNBIDE EGOKIAREN DEFINIZIOA GIZARTE ZERBITZUETAN

Gizarte-zerbitzuetako jardunbide egokitzat hartzen dira Arabako Lurralde Historikoan egindako proiektu, jarduera edo esperientzia guztiak, baldin eta arreta-testuinguru positibo bat sortu badute, harreman-elementua esku-hartzeak humanizatzeko funtsezko bektore gisa sustatzeko eta indartzeko.

Elementu erlazionalak, benetakotasunean, enpatian eta errukian errotuta, egiazkotasun-irizpide hauek bereganatzen ditu:

- Zentro, zerbitzu edo programetan ezar daitezkeen harreman motetan eragina izan dezake,



bai esku-hartzearen zati desberdinen artean (erabiltzaileen eta profesionalen artean edo senideen eta profesionalen artean), bai talde bereko pertsonen artean (profesionalen arteko harremanak edo erabiltzaileen arteko harremanak), bai hiru aldeek esku hartzen duten harremanetan (erabiltzaileak, senideak eta profesionalak).

- Elkarrekikotasun- eta interdependentzia-testuinguru batean gertatzen da, eta benetakoa da arretan esku hartzen duten pertsona guztiek eragin positiboa dutenean, harreman-loturak aberasten dituzenean, eta horrek gizalegez hazteko aukera ematen die, eta, langileen kasuan, baita profesionalak ere.
- Eragin positiboa du arretan esku hartzen duten pertsona guztien eskubideak, premiak, interesak eta balioak errespetatzean: zalantzarik gabe, erabiltzaileen eskubideak, premiak, interesak eta balioak; izan ere, erabiltzaileen ahuleziagatik, arreta berezia jaso behar dute, baina baita haien senideenak edo hurbilekoenak eta profesionalenak ere.
- Onartzen eta baloratzen du pertsona guztiak, nolabait, "adituak" direla arretan, eta ez direla profesioletara mugatzen, baizik eta erabiltzaileetara eta haien senideetara.

Aurkezten diren esperientziak eta proiektuek 2023an indarrean jarraitu beharko dute, osorik edo zati batean.

## **2.- EMATEN DEN ARRETAREN KALITATE MAILAREN ERAGINA**

Proiektu, jarduera edo esperientzia batek kalitatezko arreta eskaintzen duela ulertuko da esku hartzen duten pertsonak (erabiltzaileak, profesionalak eta erabiltzailearentzat erreferente diren familiak/pertsonak) sentazio multzo bat sentitzen badute:

- **SEGURTASUN-SENTSAZIOA**, sortutako harremanen esparruan seguru sentitzea.
- **KIDE SENTITZEA**: harremanen parte sentitzea
- **JARRAITUTASUN-SENTSAZIOA**: harremanek iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko lotura bermatzen dutela sentitzea.
- **HELBURU SENTSAZIOA**: helburu pertsonalak izatea
- **OSOTASUN SENTSAZIOA**: helburu horiek lortzeko bidean aurrera egitea
- **ERREKONUZIMENDUAREN SENTSAZIOA**: garrantzitsua dela sentitzea.

## **3.- GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUNBIDE EGOKIAK AITORTZEKO DEIALDIAREN HELBURUAK: -BeBai- 2024.**



- Honako hauetan egin diren jardunbide egokien proiektuak, jarduketak edo esperientziak ezagutzea eta ezagutaraztea:
  - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko edozein esku hartze arlotan.
  - INDESAREN programetan, zerbitzuetan eta antolaketan.
  - Gizarte ekintzako hirugarren sektoreko Arabako erakundeetan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzak hitzarmenen, kontratuen eta abarren bidez harremana duten merkataritza ekimen pribatuko erakundeetan.
  - Arabako Lurralde Historikoan kokaturik dauden eta gizarte arloan lan egiten erakundeetan, nahiz eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin harremanik ez izan.
- Egindako proiektuak, jarduerak edo esperientziak aurkeztea eta haietan egindako ahaleginak eta lotutako jarduerak zabaltzea.
- Arretako jardunbide egokien inguruko ideia, proiektu eta ekimenetan parte hartzea eta haiek hedatzea sustatzea, aurkeztutako proiektuetatik abiatuz.
- Egindako jardunbide egokiei balioa ematea, BeBai sarien bidez.
- Ikerketa-kultura sustatzea gizarte erakunde guztietan. Ikerketa etengabeko prozesua da, eta gauzen zergatia aurkitu, ikertu eta azaltzen saiatu beharretik abiatzen da. Hori dela eta, funtsezko zeregina da talde profesionalentzat, hortik abiatuta aldaketa sozial sakonak gerta baitaitezke, gure gizartean hobekuntzak egin ahal izateko.

#### **4.- JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK**

Jardunbide egokien irizpideen definizioan, eta deialdi honetako 2) puntuan adierazitakoaz gain, honako identifikazio irizpide hauek ezartzen dira deialdira aurkezten diren programa, proiektu eta esperientzien artetik:

1.- Alde interesdunen beharrei eta itzaropenei erantzuten die, pertsona zaugarrienei lehenetsuzko arreta emateko ikuspegitik.

2.- Sormena eta berrikuntza jarduera proposatzean eta garatu beharreko prozeduretan

3.- Esku hartzeko metodologia, datu objektibo eta neurgarrietan oinarrituta justifikatu, diagnostikatu, planifikatu, ezarri eta ebaluatuko duena. Informazioa sistematikoki biltzea, aztertu ondoren emaitzak hasierako aurreikuspenekin edo aurrekontuekin bat datozen ondorioztatu ahal izateko.

4.- Eraginkortasuna: eragin positiboa dago pertsonengan, kalitate adierazle batzuk aplikatzearen arabera. Adierazle horien emaitzek ("pre" eta "post") hobekuntza hori egiaztatzen dute.

5.- Errepikagarritasuna eta iraunkortasuna denboran zehar: praktika sistematizatuta dago eta aukera ematen du antzeko testuinguruetan errepikatzeke, bai eta denboran irauteko ere. Era berean, jasangarritasun/iraunkortasunaren barruan antolaketak, teknika eta ekonomia alderdiak ere sartzen dira.

6.- Parte hartzen duten alderdien arteko koordinazioa eta lankidetzak, eta diziplinarteko lan metodologia baloratzen da.



7.- Generoaren zeharkako ikuspegia, garapenean eta eraginean kontuan hartuta.

## 5- PARTE HARTZEA

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen arlo hauetako zentro eta zerbitzuetako profesionalak eta taldeek. *Gizartegintza Arloa; Desgaitasuna duten Pertsonen Arloa; Adineko Pertsonen Arloa; Adingabeen eta Familiaren Arloa.*
- INDESAREN zentroetako profesionalak eta taldeek
- GOFEREkin harremana duten gizarte ekintzako hirugarren sektoreko erakundeetako profesionalak eta taldeek
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin harremana duten merkataritzako ekimen pribatuko erakundeetako profesionalak eta taldeek.
- Arabako Lurralde Historikoan kokaturik dauden eta gizarte arloan lan egiten duten erakundeetako profesionalak eta taldeek, nahiz eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin harremanik ez izan.

## 6.- JARDUNBIDE EGOKI BAT HAUTATZEKO PROZESUA

Aurkeztutako jardunbideak baloratzeko eta, ondoren, -BeBai- sarietarako hautaketa egiteko, 4 kidek hauek osatutako epaimahai bat eratu da:

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzari atxikitako bi pertsona
- Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Beharrezkoa bada, aurkeztutako jardunbideari buruzko informazio gehiago eskatuko ahalko zaio sustatzaileari.

Deialdi honetan emandako informazio guztia Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak argitaratu eta zabaldu ahal izango du, esperientzia trukea errazteko. Beti adieraziko dira proposamena aurkeztu zuen zentroaren edo erakundearen datuak, datu pertsonalei buruzko salbuespenak salbuespen.

## 7.- BeBai SARIAK

Deialdira aurkeztu diren proiektu, programa edo jardueren artean BeBai sariak hautatzeko prozesuan, ebaluazio bat egingo da, baremo baten arabera, eta baztertu egingo dira aurretiko hautaketa fasera iristen ez direnak (3. eranskina).



## 6.- AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Proposamenak **2024ko martxoaren 22rako** aurkeztu beharko dira, egun hori barne, Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzan (Araba Jenerala 10, 4. – 7. bulegoa, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo posta elektronikoz ([Adm1.Secretaria.IFBS@araba.eus](mailto:Adm1.Secretaria.IFBS@araba.eus) ) bidalita, eta nahitaez honakoak jasoko dituzte:

- 1) Fitxa teknikoa (I. eranskina), beteta
- 2) Jardunbide egokiaren aitortpena egiteko proposatzen den deskribapen memoria (2. eranskina), beteta



## 1. ERANSKINA

### Fitxa teknikoa

Proiektu, jarduera edo esperientziaren izena: .....

Entitate edo erakunde arduraduna: .....

Arduradunak (izen-abizenak): .....

Erreferentziako telefono zenbakia(k): .....

Erreferentziako helbide elektronikoa: .....



## 2. ERANSKINA

### JARDUNBIDE EGOKIAREN DESKRIBAPEN MEMORIA

Jardunbide egokiak aitortzeko deialdira aurkezten diren esperientziak, jarduketak edo proiektuak baloratu ahal izateko, deskribapen memoria bat helaraziko da, gutxienez eduki hauekin:

#### Edukien aurkibidea:

1. Proiektu, jarduketa edo esperientziaren **izena**.
2. **Tokia**: non egiten den.
3. **Taldea**: zer talderi zuzentzen zaion.
4. **Ezartzea justifikatzen duten arrazoiak**:
5. **Helburuak**: helburuak (orokorrak eta zehatzak)
6. **Jarduer(ar)en deskribapena**: proiektuaren, jarduketa edo esperientziaren eta erabilitako metodologiaren deskribapena. Diseinatzea eta abian jartzea. Zer jarduera barne hartzen dituen. Eskatutako laguntzak eta jarduketa profesionalak. Erkidegoko baliabideekin koordinatzea. Praktikaren arrakasta faktore kritikoak identifikatzea. Gaur egungo egoera eta antolaketa.
7. **“Pre” eta “post” kalitate adierazleak**.
8. **Zein alditan garatu den**: hasiera data, noiz hauteman diren aldaketa esanguratsuak, inflexio oneak. Puntuala izan daiteke ekintza jakin baterako, edo iraunkorra denboran. Proiektuaren etapak. Sekuentzian antolatutako edukien banaketa, denbora unitateetan. Egutegia.
9. **Parte hartzen duten sail, administrazio eta erakundeak**: zehaztu ea GOFEn beste arlo batzuek, INDESAk edo beste sail, administrazio edo erakunde batzuek parte hartzen duten.
10. **Baliabideak**: zer baliabide erabiltzen den. Giza baliabideak. Materialak. Baliabideak optimizatu eta aprobetxatzea. Zerbitzuen espezializazioa.
11. **Araudia**: proiektu, jarduketa edo esperientzia arautzen duen arautegia aipatzea.
12. **Ebaluazioa**: ebaluazio sistema eta erabilitako tresnak.
13. **Emaitzak**: lortutako emaitza nagusiak. Helburuen betetze maila. Lortutako estaldura (artatutako erabiltzaileak/pertsonak). Erabiltzaile eta parte hartzaileen gogobetetasuna.
14. **Eragina**: enplegua sortzea, populazioa finkatzea, baliabideak dinamizatzea, banako eta taldeen inplikazioa.
15. **Finantzaketa**: baliabide ekonomikoak: aurrekontua; finantzaketa; bideragarritasun plana.
16. **Ondorioak**: proposatutako hobekuntzarekin zerikusia duten ezaugarri garrantzitsuenak. Sendotasun nagusiak. Hobetzeko alderdiak. Zer egin behar den, eta zer egin behar ez denari buruzko ideia nagusiak. Zer gehiago egingo genuke, edo zer geratzen zaigu egiteko esperientziaren ondoren, hobetzen jarraitzeko?



### 3. ERANSKINA

#### **JARDUNBIDE EGOKIEN AURREHAUTAKETAKO ETA HAUTAKETAKO BAREMOA**

Aurkeztutako **proiektuen, jarduketan edo esperientzien** artean jardunbide egokiak hautatzeko, honela jokatuko da:

Lehenik eta behin, aurrehautaketako fasea gainditu beharko du, ezinbesteko baldintza baita hautaketa fasera igarotzeko, beheko taula beteta, eta gutxienez 4 baiezko lortuko ditu.

#### **AURREHAUTAKETA FASEA**

	Bai	Ez
A) Harremanak sustatzen ditu eta pertsona hobeto sentiarazi		
B) Pertsonak bere bizitzako alderdiei buruz erabaki ahal izatea errazten du		
C) Pertsonak zerbitzu komunitarioetan parte hartzea errazten du		
D) Familiaren eta/edo pertsona esanguratsuen inplikazioa sustatzen du		
E) Giro eta denbora seguruak, egonkorak eta atseginak sortzea bilatzen du		
F) Pertsonaren eskubideak aitortzea eta errespetatzea dakarten neurriak ezartzen ditu.		
G) Ezagutzak, trebetasunak eta esperientziak eskuratzen laguntzen du, bizitzan modu autonomoagoan moldatzen laguntzeko.		
H) Esku hartze hori behar bezala justifikatuta eta diagnostikatuta dago, eta ezarritako diagnostikoarekin bat datorren plangintza eta ezarpena du.		

#### **HAUTAKETA FASEA**

Aurrez hautatutako jarduketa, esperientzia edo proiektuen artean baloratuko da, honako aldagai hauen gutxieneko eta gehieneko puntuazioen arabera:

- **Eskala edo irismen esanguratsua du ematen den arretaren kalitatean eta pertsonaren bizitzaren hobekuntzan, eta “pre” eta “post” kalitate adierazle ahalik eta objektiboan aplikatuz egiaztatzen da.**





Puntuak: 1 gutxi; 3 nahikoa; 5 asko

- **Pertsonen bizi-kalitatean eragina izango duten ekimenak (prozedurak, protokoloak, etab.) ezartzea dakar:**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Diziplinarteko lankidetzaren arrakastatsua eskatzen du:**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Jasangarria eta berritzailea da:**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Errepikatu daiteke, doiketekin, gizarte arretako hainbat arlotan**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Planteaturiko arazoari sormenezko ikuspegia ematen dio**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Genero ikuspegia kontuan hartzen dute esku hartzearen fase guztietan**

Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

- **Esku hartzeak hauskortasun eta zaugarritasun egoera berezian dauden pertsonak hartzen ditu kontuan**

- Puntuak: 1 gutxi; 2 nahikoa; 3 asko

Puntuazio handiena duten proiektuak –BeBai- sarietarako proposatuko dira, eta epaimahai ebaluatzailearen eskumena izango da BeBai sarietarako hautatutako proiektuen azken kopurua zehaztea, puntuazio handiena lortzen dutenen artean, haien kalitatea kontuan hartuta.

Vitoria- Gasteiz, 2023ko urriaren 6a.